

Altza XXI. mendean

Maiatzaren 30ean eta 31n eta ekainaren 1ean, Altza XXI. Mendeko Topaketak egin ziren Casares kultur etxean, Altza XXI plataformak antolatuta. Jardunaldiok, batik bat, Audituz Akularreko proiektua izan zuten hizpide.

Sara Soria

Topaketak maiatzaren 30ean hasi ziren eta egun horretan "Un lugar llamado milagro" filma eman zen. Nekazari bat da filmearen protagonista eta bizilagunen laguntzaz, aurre egiten dio bere herrian luxuzko urbanizazio bat egin nahi duen enpresari. Altza XXI plataformak filmearen gaia Audituz Akularreko auziarekin parekatu zuen.

Maiatzaren 31n Jose Allen-



de EHuko Hiri eta Herrialdeetako Planifikazio katedraren lurralde antolaketa eta herri partaidetzari buruzko hitzaldia eskaini zuen. Jose Allendek Europan lurralde antolaketa arloan nagusitzen ari diren joerak azaldu zituen. Berak aipatu zuenez, "Europako hirigintzan hiri tinkoak nagusitzen ari dira, eta ez, ordea, jendeak lo egiteko besterik erabiltzen ez dituenak. Bestalde, hiriaren hazkundera barnealdean hutsik dauden zonaldeak berreskuratuz gatzatzen da, kanpoaldea gehiago zabaldu ordez". Horrez gain, lurralde antolamenduan eta, beraz, Audituz Akular bezalako proiektuetan, herri partaidetzaren garrantzia nabarmendu zuen Allendek: "Lurralde antolamendua zientzia politikoa da, hots egitasmo



Herritarren partaidetzaren garrantzia azpimarratu zen jardunaldietan.

bakoitzari, egilearen arabera, lehenetasun ezberdinak eman ohi zaizkio. Hortaz, teknikariek politikoei eskatutako Altza egingo dute. Hori kontuan hartuta, horrelako proiektuetan herritarrek parte hartzea ezinbestekoa da".

Ekainaren 1ean, azkenik, hirigintza, soziokultura eta ordezkaritza ereduak izan ziren jorrotutako gai nagusiak, mahai inguru eta lan taldeen eztabaidetan. Hirigintzaz eta Plan Orokorren berraztertzeari buruz aritu zen Maribi Joaristi Altza XXIeko kidea. Soziokultura arloan, Amaia Almiral Casareseko zuzendari ohia eta Xabier Arana Askagintzako kidea etxebizitzaren arazoari buruz mintzatu ziren.

Bolo Txapelketa

Hilaren 8an, larunbata, Herrera Kiroi, Elkarreak eta Euskal Giroak antolatuta, Euskal Herriko Bolo-toki Txapelketa jokatu da Herri-erako bolatokian. Txapelketa 08.00etan hasiko da. Lehiaketa bukatzerakoan sari banaketa egingo da eta Herri-erako zenbait haurrek aureskua dantzatuko dute txapelaren aurrean. Azkenik, 14.30ean bazkaria egingo da Euskal Giroa elkartean, trikitilariak lagunduta.



Azkenik, Pasaiaiko alkate ohi Xabier Portugalek, Zubietako alkate Xabier Arregik eta Igeldoko Herri Kontseiluko kide Alex Aisak herritarren partaidetza eredu ezberdinak izan zituzten hizketagai.

ALDAIA taberna

Ikatz kalea 8

FEDERIKO TABERNA

EGUNEZ ETA GAUEZ GIRORIK ONENA

FERMIN KALBETON 27

TTVNTTVN TABERNA

San Jeronimo 25

Parte Zaharreko martxarik onena

TABERNA

Fermin Kalbeton-26

Lore-bu

Gozatzeko musikarik onena

15 TABERNA

konstituzio plaza

ALTXERRI

Erregina Erregenta, 2 • DONOSTIA